

## 9.KOSTU EGITURA

Zein dira gure proiektuko kosturik garrantzitsuenak?

Gure kasuan batez ere hasieran egin beharra daukagu inbertsioa, hau da, gure jatetxe propioa eraiki eta gure ideia berritzaile hori erantsi ahal izateko. Baina denborarekin behin martxan jarrita, pena mereziko du asko inbertitzea, gure ustez arrakasta handia izango baitu. Gutxi gorabeherako prezioa 20.000-30.000 euro izango lirateke.

Kontzeptua	Kostua
Obra eta jatetxea irekitzea	3.500€
Obretako gertakaria	7.000€
Jatetxeko erabilpenaren lizentzia	1.600€
Obraren lizentzia	250€
Makinaria eta altzairuak	8.000€
Lokalaren alokairua	2.000€
Guztira	22.350€

Gure enpresak arrazoi hauengatik funtzionatuko duela uste dugu:

- **Prezio baxua** → ez da luxuzko jatetxe bat izango nahiz eta garestia izango dela dirudien. Azken finean, honekin bezeroak lortu nahi ditugu eta garestia bada ez litzateke inor etorriko. Honetaz aparte, leku eroso bat izatea nahi dugu publiko guztiarentzat
- **Kalitate maila** → altua izango dela iruditzen zaigu, azkenean gure aliantzak emango dizkiguten produktuetan ez daukagu problemarik, nahiz eta, agian noizbait problemaren bat eduki. Gure langileetan ere esperantza daukagu, kalitatezko enpresa bat izango dela seguru gaude.

Kostu-egituraren ezaugarriak:

- **Kostu finkoak** → lokalaren alokairua eta egiten den obra, beharrezko lizentziak ireki ahal izateko (jatetxe edo tabernako lizentzia eta obren lizentzia adibidez), jatetxea egiterako orduan jarriko dugun diseinu eta material guztia (makinaria eta altzairiak), mahai tresnak, langileen soldata...
- **Kostu aldakorak** → sukaldarako lehengaiak, hau da, janari osoa, erosiko dugunaren kantitatearen araberakoa izango da; gure jatetxera iristeko erabiltzen den garraio eta erregaia...

Eskala-ekonomiak:

- **Rapel** → geroz eta lehengai gehiago erosi geroz eta merkeago, hau da, hemen eskala bat egongo da guretzako deskontu bat izango delako
- Bezeroentzako deskontuak izatea ere onuragarria izan liteke nahiz eta zuk deskontuan jarri, arrakasta izan ezkerro geroz eta bezero gehiago gerturatzeko aukera dago

Hedapen-ekonomikoak:

- Sukaldea ekoizteko erabiliko dugu eta bertan gauza ezberdin asko ekoitziko dira funtsa berdina izanda.
- Zerbitzatzeko prozesua ere beti berdina izango litzake